

Zer da perpausa?

Zer dira perpausak?

Perpausak /esanahi osoa duten esaldiak/ dira.

Zer izan behar du esaldiak perpausa izateko?

/Aditza izan behar du/ esaldiak perpausa izateko

Nola hasten dira perpausak idazkera aldetik?

/Letra larriz/ hasten dira esaldiak idazkera aldetik.

Zer marka dute perpausak amaieran?

/Puntua/, hiru puntuak, eta galdera- edo harridura-marka dute amaieran.

Gramatika

1.-Erreparatu irudiari eta esan zein den perpausa eta zein ez. Nork esan du bakoitza?



Ederra da zure txakurra. perpausa da. ez da perpausa / Neskak esan du.
Eskerrik asko. perpausa da. ez da perpausa / Mutilak esan du.

2.-Irakurri testua eta esan zenbat perpaus dituen.

Zalapartaren eragilea



Zalapartaren eragilea hamar bat urteko mutiko txiki eta lodi bat zen. ile gaztainakara bustia aurpegira itsatsita zeukan. Berokia blai eginda zeraman. Eskolako zorroa sorbaldan eskegita zekarren. Zurbil samar zegoen. Lasterka sartu zen. Bat-batean, geldi geratu zen atarian. Itzez josita zirudien.

8 perpaus ditu.

3.-Esan perpaus hauetako bakoitzak zer galderari erantzuten dion, adibidean bezala: ■ Oso lagunkoia delako miresten dute. Zergatik?

- | | |
|--|------------|
| ■ Ni txikitatik argal samarra izan naiz. | Nolakoa? |
| ■ Txoriek bezala egiten duzu txistu. | Nola? |
| ■ Futbolari trebea zarela entzun dut irratian. | Zer? |
| ■ Xakean aritzen denean, zoriontsu sentitzen da. | Nola? |
| ■ Lotara noa nekatuta nagoelako. | Zergatik? |
| ■ Neska ilehoria Suediakoa da. | Nongoa? |
| ■ Askok ikasiko dut, irakasle jakintsua izateko. | Zertarako? |

5.-Osatu izen-sintagmak, hitzak ordenatuz.

Gero, idatzi bakoitzaren ardatza den izena.

- luzeak/ bibote/ katuaren
Katuaren bibote luzeak. ardatza den izena...bibote
- berdeak / piper / baratzeko
Baratzeko piper berdeak. ardatza den izena...piper
- museo / Bilboko / Guggenheim / modernoa
Bilboko Guggenheim museo modernoa. ardatza den izena...museo
- elefanteen / Afrikako / handiak/ belarri
Afrikako elefanteen belarri handiak. ardatza den izena...belarri

6.-Osatu perpausak, izen-sintagmetarako aditz sintagmak asmatuz. Ensayo

- Mirenen etxeko leihoa [egurrezkoa da](#).
Kaleko txakur hura
Donostiako Urumea ibaia
Gure auto berria
Ikastetxeko zuzendariak